

Bijoaz egaz txoriak,
bebiltza saldoka antsiak;
nik ez dut gogo euzkirik urrun,
nere baserriak
asid ditu bero-izpiak,
erakar zantzuz jantziak;
zu ta ni etxe, bat-bat gaituzu
bizi-naiez josiak.

IZENA

Ezilkor miña dugu barnc-muiñean, iñolaz ere jaurti eziña. Goikoaren antz-irudiko sortuak garan ezkeru, ezin dugu saiestu geugandik gurari bizi ori. Daukagun bizitaldia, ala ere, motza izan, bizkor dijoana, ta ementxe ere, lur-gain onetan geure-geurea dan zerbait luzerazi nai. Seme-alabak gurasoen luzapen ez dira besterik.

Doiñu: «Nere semen seme...».

Iru muskilño dauzkat nere kabi maitean,
irurak ditut laztan iñortxok ez bestean:
batak du begi goxo, besteak muxu gorri,
irugarrenak dizu iruditzen ozkorri.

jaioberri zirala bataio egunean,
altxa nitun irurak euskaldun izenean.
Bertatik begi-samur ezpaneaz naiz miingaiñez
euskeraz asi ziran aita ta manñ deiez.

Aita ta ama langorik samurra dan izenik
ez dugu oraindikan ezagutzen solasik.
Azi ta indartu beitez amaren besoetan
euskal izkera dutela maozko (1) ezpaiñetan.

Maite sua biori digute maiz azaltzen,
amak die irakatsi Goiko Jauna otoizten:
lur-aitamak gara gu, goian egizko Aita;
aurrak bion izenak, euskeraz eder baita.

Zentzunak garamazki bide ortatik zear,
bakoitzari berea hear diogu ezar;
egoki datorkion izenez dago dana,
nik ere nere aurrai euskaldun izen bana.

Gure seme-alabak beude bai euskaldun,
bestela neu nintzake gaitz orren errudun;
aurrak sortu daneko du bere aberria,
gureak odola be geuk biok ezarria.

Duten bizi-ixurki guk diegu oretu,
giza-miñetan ere nai gintuzke lagundu:
ez dut bide leunik nai; gurasoen katea
ez bedi zabarkeriz eten, edo ta xea.

Txiki auen naigabez naizu naigahetuko,
dituzten egarriak naute egarrituko;
Jainkoa ta erria diet ziñez erakutsiko,
nere etxeko arriok bitez ortan lekuko.

(1) Krabelin.